

Joanaren jeansak

João Manuel Ribeiro

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Bilduma: Ostiral saila (10 urtetik gora)

Generoa: Gazteentzako poemak

Formatua: 120 x 190 mm.

Orrialdeak: 64

Koadernaketa: paperezko azala

Argitalpen data: 2024/11/06

ISBN: 978-84-9868-872-6

SALNEURRIA (BEZ gabe): 13,37 €

SALNEURRIA (BEZ barne): 13,90 €

**POEMAK, IDENTITATEAREN BILAKETA,
HARREMANAK, HELDUTASUNA, IRONIA**



Sinopsia

Os Jeans de Joana liburuaren poemetan, hurrak izateari utzi diotenen baina oraindik heldutasunera iritsi ez direnen (hortik dator Poemas para Adultolescentecer azpititulua) kultura islatzen da, modu poetikoan islatu ere, aberastasun paradoxiko eta kontraesankorrean.

Nortasunaren bilaketa, maitemina, flirteoak, gurasoekiko eta eskolarekiko harremanak, kontraesanak eta dilemak, emozioak, erronka pertsonalak eta profesionalak, ametsak eta desioak, heldutasuna, modak, konbentzioak, digitalizazioa, teknologiaren eragina... Horiek guztiak irakurtzen eta idazten dira poetaren lan honetan, bizitzaren gogortasuna eta ironia albo batera utzi gabe.

Egileak

JOÃO MANUEL RIBEIRO Idazlea, editorea eta ikertzailea. Hezkuntza Zientzietan doktorea, Coimbrako Unibertsitatean. Ikuskapen Pedagogikoa eta Prestatzaileen Prestakuntza masterra, unibertsitate berean. Haur eta Gazte Liburu eta Literaturako Masterra, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Teologiako masterra, Portoko Unibertsitate Katolikoan. Teologian lizentziaduna, unibertsitate berean.

Haurrentzako poesiaren autore oparoenetako bat da, eta haur literaturako hiru dozenatik gora liburu argitaratu ditu, poesian nahiz narratiban. Antologietan, eskolaeskuliburuetan, gramatiketan eta ariketa-liburuetan agertzen da. Haur eta Gazte Literaturaren arloan ikerketa eta kritika garatu ditu, artikulua argitaratuz, zientzia-ekitaldiak sustatuz eta horietan parte hartuz.

JUAN KRIZ IGERABIDE (1956) Adunan (Gipuzkoa) jaio zen, eta bertan bizi da. Maisu ikasketak egin eta irakasle ibili zen zenbait herritan zortzi urtez. Filologia ikasi eta Euskal Filologian doktoregoa egin zuen. Poesia idatziz eta ikertuz sartu zen literaturaren munduan. Haur literaturako ikerketak ere egin zituen, eta bere lehen liburua *Begi-niaren poemak* izan zen. Geroztik lan ugari. argitaratu du, poesia zein prosaz.